

PRESIDENTEAREN GUTUNA

/"CAFen, garapen arduratsu, orekatu eta jasangarri batekiko berretsi dugu gure konpromisoa; dimentsio ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa gure erabakietan modu koherentean integratuz."



2025. urtea **geopolitikoki, makroekonomikoki eta klimatologikoki ezegonkorra** izan da. Hainbat gatazken areagotzeak, nazioarteko segurtasunaren paradigma berriak, Txinaren eta Estatu Batuen arteko lehia teknologiko eta komertzial gero eta handiagoak eta geroz eta ohikoagoak diren muturreko fenomeno klimatikoak. Horrek denak hartu du agenda globala eta gobernu eta enpresen jardura baldintzatu du. Testuinguru honetan, jasangarritasuna ez da soilik eginbehar bat, aukera bat baizik; etorkizun erresiliente, lehiakor eta justuago bat eraikitzeko.

Europak, gure merkatu nagusi eta Taldearen jardura eta gune gehien biltzen dituen lekua, urrats erabakigarriak eman ditu norabide horretan: **Clean Industrial Deal**-aren aplikazioarekin, 2028-2034 Urte Anitzeko Finantza Esparruaren aurkezpenarekin, klima, digitalizazioa eta segurtasuna ardatz estrategiko gisa hartuta, eta araudia sinplifikatzea helburu duen **Omnibus** paketea onartuz.

Nahiz eta testuinguru globala konplexua izan, gure sektorearen perspektibak positiboa izaten jarraitzen du. Tren merkatuak 2029ra arte urtero %3ko hazkundera aurreikusten du, urbanizazioak, garraio publikoaren gorakadak eta elektrifikazioak sustatuta. Aldi berean, **ekonomia zirkularrak, digitalizazioak eta adimen artifizialak** aukera berriak sortzen dituzte berrikuntzarako, gure operazioen eraginkortasuna hobetzeko eta gure negozioen erresilientzia sendotzeko.

CAFen, garapen-eredu **arduratsu, orekatu eta jasangarriarekin dugun konpromisoa** berretsi dugu; gure erabakietan ekonomia, gizartea eta ingurumena modu koherentean integratuz. Gure **Plan Estrategikoak, Plan Zuzentzaileak eta Jasangarritasun Politikak** gidatzen dute gure hazkundera eta ekarpenak jendearen ongizatera eta planetaren osasunera bideratzen dituen ibilbide-orrria izaten jarraitzen dute.

2025eko ekitaldia bereziki esanguratsua izan da CAFentzat. Gure eskaera zorroa indartu dugu, diru sarrerak handitu eta errentagarritasuna hobetu dugu, finantza-posizio sendoa mantenduz. Bereziki nabarmentzekoa da SNCBrekin izan dugun **historiako kontraturik handienaren** esleipena, 1.700 milioi eurokoa. Baita Napoliko metrorako gure lehen gidatze automatikodun proiekturako akordioa ere.

Ingurumen arloan, 2019ko oinarri urtearekin alderatuta, 1. eta 2. irismeneko emisio absolutuetan (tCO_{2e}) %30eko murrizketa lortu dugu (%60ko murrizketa intentsitatean), bai eta produktuaren erabilerari lotutako 3. irismeneko emisioak %43 murriztea ere (gCO_{2e}/bidaiari*kilometro). Murrizketa horiek, gobernantza indartsuarekin eta iraunkortasunean egindako lan sendoarekin lortu dugu. Hori dela eta, **CDPn A kalifikazio** gorena lortu dugu eta Ecovadis, MSCI, Sustainability edo S&P bezelako ESG (ingelesezko siglengatik) balorazio nagusietan gure alderagarrien parean edo gainetik jartzea.

Arlo **sozialari** dagokionez, **pertsonetikoko dugun konpromisoaren** garrantzia ere aintzatetsi da **Europako Eskualdeko Top Employer** (Espainia, Frantzia, Erresuma Batua, Alemania eta Polonia) ziurtagiriarekin. Talentua kudeatzeko eta lan-ingurune seguruak, motibatzaileak eta kalitatezkoak sortzeko ditugun jardunbide egokienak azpimarratzen ditu lorpen horrek.

Halaber, **enpresa etikarekin eta gure operazio guzietan giza eskubideak errespetatzearekin dugun konpromiso irmoa** gauzatzeko, kasu bakoitzera egokitutako bidezko diligenzia sistematikoki aplikatzen dugu, Nazio Batuen Printzipio Gidariekin, ELGERen Jarraibideekin eta Mundu Itunaren Hamar Printzipioekin lerrotatuta. Modu etiko eta gardenean jarduteko dugun erabakia, besteak beste, Jerusalemgo proiektuari buruzko informazio garrantzitsu espezifiko argitaratzean eta proiektu horretan behar den arreta aplikatzean gauzatu da.



Azkenik, **finantza jasangarriari dagokionez**, 2025eko ekitaldiaren amaieran dugun negozio bolumenaren %86 bat dator Jarduera Ekonomiko Jasangarrietarako Europar Batasunaren Taxonomiarekin, gure helburua lortuz eta balio jasangarritzat dugun posizioa indartuz. Gainera, **1.000 milioi euro baino gehiago bideratu ditugu gure Finantzaketa Berde eta Jasangarriaren Esparruarekin lotutako proiektuetara**, eta **80 milioi euroko** mailegua formalizatu dugu **Europako Inbertsio Bankuarekin**, gure operazioen berrikuntza eta jasangarritasuna bultzatzeko.

Emaitza hauek, gure gardentasunarekin eta doitasunarekin batera, **CAFen burtsa-balioa handitzen** lagundu dute 2025ean, %69ko hazkundearekin. Egoera honek agerian uzten du gure estrategia sendoa dela eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko prest gaudela.

Aurrera begira, **2026 urtea funtsezkoa** izango da aurreikusitako jarduerak **finkatu** eta gure **Plan Estrategikoan eta Jasangarritasuneko Plan Zuzentzailean** ezarritako helburuak gauzatzeko, bai eta hurrengo ziklo estrategikoko helburu berriak zehazteko ere.

Eskerrik beroenak eman nahi dizkiet **CAFeko kide** guztiei beren dedikazio, profesionaltasun eta eguneroko konpromisoagatik. Gure **akziodunei**, eskerrik asko zuen konfiantzagatik eta etengabeko bermearengatik. Gure **bezeroei**, bazkide estrategiko gisa gu aukeratzeagatik. Eta gure **hornitzaileei**, proiektu bakoitzean arduraz eta bikaintasunez laguntzeagatik. Elkarrekin **CAF** sendoago, lehiakorrago eta jasangarriago bat eraikitzen ari gara.

Ziur gaude gure ahaleginek **eragin positiboa eta iraunkorra sortzen dutela jendearen bizitzan eta planetaren zaintzan**. Hau da zehaztu dugun bidea eta determinazioz jarraituko dugu aurrera.


Eskerrik asko gudan konfiatzen jarraitzeagatik.

CAF gara, jasangarriak gara.

Adeitasunez,

Andrés Arizkorreta

Administrazio Kontseiluko Presidentea



Moving for Lives